

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2019ko apirilaren 11ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 463026

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean kontsulta daiteke, <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>, eta ALHAOn, 54. zenbakidunean, 2019ko maiatzaren 10ean.

Lehenengoa. Onuradunak

18 urtetik gorakoak, genero indarkeria jasan duten emakumeak, eta etxeko indarkeria jasan duten pertsonak, beren jabetzakoa ez den etxebizitza bat badute, edo usufrukturako edo azalerrarako eskubiderik ez badute, onarrietan zehaztutako salbuespenetan ezik, Zuian erroldatuak, gutxienez urtebetez eteneik gabe, edo hiru urtez etenekin azkeneko hamar urteetan, eskaera aurkezten den unean.

Bigarrena. Xedea

Beharrianak dituzten udalerriko pertsona eta kolektiboak alokairurako, azalera edo usufruktu-eskubiderako sarbidea erraztea, kasu zehaztutako izan ezik (etxebizitzaren jabetasuna, herentziaren edo donazioaren ondorioz, beti ere, ez badu ehuneko 50a ez badu gainditzen, edo balioak ez badu 75.000 euroko kopurua gainditzen; etxebizitzak ez baditu bizigarritasun baldintzak betetzen, eta ez bazaio epai bidez bikotearen barruko bikotekide bati banaketa-prozesuaren, dibortzioaren edo izatezko-bikote izaera bertan behera uzteko prozesuaren ondoren ematen; genero indarkeria jasan duten biktimak, etxebizitza segurtasun-arrazoiengatik utzi behar izan badute).

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2019ko apirilaren 11n Udal Osoko Bilkurak onartuak, eta ALHAOn 2019ko maiatzaren 10ean argitaratuak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partidaren hornikuntza ekonomikoa 4.000 eurokoa da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa hileroko errentaren ehuneko bat da, ehuneko 10etik 50erakoa, hilean 300 euroko mugarekin eskaera bakoitzeko, 12 hilabeteko gehienezko epealdirako, alokairu-kontratuaren data kontuan hartuta.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epearen amaiera: 2019ko azaroaren 29an.

Dokumentazioa Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar da.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskaerak zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2019ko apirilaren 11n

Alkate-Udalburua
UNAI GUTIERREZ URKIZA